

14 ■ Presoen eskubideen urraketa

Gaixo dauden euskal presoen eskubideak ez direla errespetatzen salatu du Etxerat-ek.

**18 ■ Oposizioko buruzagiak atxilo**

Myanmarko oposizioko lau buruzagi atxilotu ditu armadak, eta Alk kezka agertu du haien egoeraz.

har ez dezaten. Neurri zehatzetara mugatu beharrean, egungo pobrezia egoteaz jabetzeko Juradok dio ikuspegi zabalagoa eduki behar dela. Azken hamar urteetan pobrezia berria sortu dela azpimarratzen du: «Aldaketa asko gertatu da azken hamarkadetan: aberastasunaren polarizazioa geroz eta handiagoa da, lanaren prekaritatea ere bai, etxebizitzaren prezioaren gorakada...». Egoera horrek egungo gizarteak bultzatzen dituen «irizpide indibidualistekin» talka egiten du, egoerak sortzen dituen arazoan erantzule egiten baitu pertsona.

MILATIK GORA ONURADUN BAIONAN.

«Baionan 1.300 lagunek dute RMI izenarekin ezagutzen den laguntza hori», dio izena eman nahi ez duen gizarte laguntzaile batek. Gehienak Lapurdi kostaldean bizi dira, Angelu eta Miarritze direlarik salbuespenak.

Frantziak eredu korapilatsua du gizarte laguntzen arloan, eta ondorioz Ipar Euskal Herriak. Hainbat laguntza mota daude, gurutzatzen direnak. Zenbat arlotan, diru sarreren, xahutzeen eta familia egoeraren arabera gizarte laguntzaileek finkatzen dute pertsona bakoitzari dagokion laguntza kopurua. Laguntza horiek gutxieneko errentari gehitzen zaizkio. Adibidez, osasunari dagozkion xahutzeak osoki ordaintzen dizkiete. Horrez gain, etxea alokatzen duen pertsona batek laguntza eska dezake. 245 eurora mugatzen da hiler, baina txikiagoa ere izan daiteke.

Baina batetik eman eta bertetik kendu. Etxearengatik laguntza jasotzen duten pertsonen 52,90 euro kentzen dizkiete gutxieneko errentatik. Oron buru 387,96 euro ditu bizitzeko. Argindarra eta telefonoa ordaintzeko laguntzak ere eska ditzakete, Familien Kutzak erabakitzen duen eskubidea duen edo ez.

«Gizarteratzea zen lehen helburua, baina ez zaie lanik proposatzen, ez prestakuntza egokirik, funtsean jendea kontrolatzeko eta kriminalizatzeko tresna bilakatzeko ari da», dio gizarte laguntzaileak. Izan ere, langabeek kontratu bat izenpetu behar dute hastapenean. Eta hiru hilero, hautetsiek, enpresa buruek eta bertze zenbait eragilek erabakitzen dute laguntza mantentzea.

Sistemak bertze traba handi bat dauka. Langabeak hilabete batez lan egiten badu, eskubideen azterketa egiteko hiru hilabeteetako diru sarrerak kontuan hartzen direnez, gaintzen du gutxieneko sarrera eta eskubide guztiak galtzen ditu hiru hilabetez. «Sistema honek lan beltza bultzatzen du».

«Eskubide bat bete ez, mesede egiten dizutela ematen du»

Orain dela lau urte eta erdi heldu zen Nahia Gonzalez Euskal Herrira, Bilbo inguruan ezartzeko asmoz

J. R.
Gasteiz

Orain dela lau urte eta erdi heldu zen Nahia Gonzalez (52 urte) Bilbora Madrildik. Heldu eta urte bat geroago hasi zen oinarritzko errenta jasotzen. Dantza ikastaroak ematen ditu emakumeen elkarte bate-

an, eta laguntzei soldata hori gehituta, hilabetean 804 eurotara ez dela heltzen dio.

Eusko Jaurlaritzak lanaren bidezko gizarteratzea du helburu, baina Nahiak ez du esperientzia onik izan alor horretan. «Zuk eskaini dezakezuna ez baitie balio», deritzo. Txiki-txikitatik antzezlea dela aldarrikatzen du, eta horrekin lotutako egitasmoak eskaini zizkieten gizarte laguntzaileek lana bilatu behar ziotenean. Baina proposamen horiek behin eta berriaz atzera bota dizkiotela dio. «Lorrezaintza eta eraikitze ikastaroak

dira nagusi; 750 euro ematen dizkizute zortzi orduko lanaldiagatik, eta, sei hilabeteren buruan, praktikak bukatuta, ez dago jarraitzerik». Bilbotik Sodupera mugitu zen alokairu merkeago baten bila. «Oinarritzko errenta etxeko jabearentzat da zuzenean eta gero dagoenarekin moldatu behar».

Bizitza beste modu batean antolatzeke beharra aztertu duela dio Gonzalezek. Euskal Herrian sustairik ez izateak asmo hori nabarmen zailtzen duela azpimarratu du, ordea. Horretaz gain, errolda aldatzean Etxebideko alokairuko

pisuetarako sarbidea eragotzi diotela kritikatu du.

Alokairurako Gizarte Larrialdietarako Diru Laguntzek ez dute la mesede askorik egiten dio. Bilbon urtean behin eskatzen dira laguntza horiek. Hilabetea alokairurako 145 euro ematea «nahiko lotsagarria» dela deritzo. Horretaz gain, apurka ematen dituzten laguntzak direnez, hartzailea txarto sentiarazten dute. «Zurea den eskubide bat bete ez, mesede egiten dizutela ematen du».

Laguntzak hainbatetan kendu dizkiotela azaldu du Gonzalezek. Arartekora joan zen gertatutakoaren berri ematera, eta oraindik oso gogoan duen erantzuna eman zioten bertan. «Izan ere, jendea ez zen joaten bertara kezka horiek jakinaraztera, horrek izan zitzakeen ondorioen beldur».



Lucrece Belghoulek lau urtez ukan du gizarteratzeko gutxieneko soldata. Sistemak gizarteratzeko ahalmenik ez duela dio. BERRIA

«Errentaren helburua ez da gizarteratzea, oldarra ekiditea baizik»

Hiru hilabetez laguntzak kendu zizkieten Belghouli, etxea partekatzeke lagun bat hartzeagatik

A. R.
Baiona

Lucrece Belghoulek lau urtez ukan du gizarteratzeko gutxieneko errenta. «387,96 euroekin, etxea ordaintzeko kenduta, ezin da bizi. Laguntza horren helburua ez da gizarteratzea, jendearen oldarra ekiditea eta gizartearen bakea

atxikitzea baizik». Diru kopuru horrek eta duintasan ez dutela bat egiten dio. Estatistiken jokoari begira, gutxieneko errenta ez dela langabezia kontatzen azpimarratzen du. Iraupenerako dela ukantik, lan beltza edo bertze bide batzuk jorratu behar dituzte.

Janaria da horietako bat. Ez du onartzen dirurik ez izateagatik ongi jateko eskubiderik ez duenik. «Lanik ez badut ere, ez dut zaborrik janen, eta dei egin nahi diet nire egoeran daudenei, dituzten baliabidea erabil ditzaten, duintasunez elikatzea eskubidea delako».

Gutxieneko errentak bakartze-

ra bultzatzen dituela dio. Alta, baztertuak badaude ere hiritar eta kontsumitzaile direla dio. Ez dute 1.000 euro xahutzeko, baina Estatutik hartu 387,60 euro horiek gasatzen dituzte kontsumitzaile gisa. Eta BEZ gisa %20 Estatuari itzultzen zaiola dakar gogora.

Kontseilu Nagusiak laguntzak kendu zizkion hiru hilabetez. Lagun batek etxea partekatzea eskatu zion, eta kontratuan sartu zuen, Familien Laguntzarako Kutzako langileak arazorik ez zegoela azaldu ondoren. Alta, hilabete baten buruan laguntzak kendu zizkieten. Bikotean bizi zela argudiatu zioten, nahiz eta Belghoulek azaldu bere bikotea bertze etxe baten bizi zela. «Azaldu zidaten gizonezko batekin bizi nintzenez ardura-dunen aitzinean bikotea ginela, arazorik ez zela izanen pisukidea neska izan balitz, edo ni gizona». Errepublikako laikoari moral katolikoa egitea leporatzen dio, sexu bereko pertsonen arteko harremanik ez balego bezala. Uste baten

arabera, gizarte laguntzak eteten dituen sistema salatzen du. Laguntza murriztak elkarrekin bizi-tzera bultzatzen ditu, eta gero, sistemak gutxitzen die laguntza.

Egiturak gizarteratzeko ahalik ez duela dio. Prestakuntza gisa gildatzeko baimena lortzea eskatu zuen eta ukatu zioten. Alta, lan proposamenak jasotzen bazituen, ezin zituen hartu, ez zuelako ez gidabaimenik, ez autorik.

«Laguntza eskatzen dugularik kontratua izenpetzeko eskatzen digute, eta nahiz eta ez den derri-gorrezkoa, gizarteratzearekin deus ikustekorik ez duten pertsonen erabakitzen dute eskubidea dugun, haien Estatistiken arabera». Delinkuentziaren legearen ondorioz, gizarte laguntzak eskatzen dituzten guztiak kriminalizatzen dituztela dio. Izan ere, gizarte zerbitzuek ez dute lanbide sekreturik, eta pertsonen datu konfidentzialak partekatu behar dituzte gainerateko zerbitzuekin, horien artean justizia eta polizia.